

Aiaraldea

Eskualdeko bertso bilduma

2013-20134 ikasturtea

Proiektuaren sustatzaileak

Amurrioko Udala
Amurrioko ikastetxeak
Urduñako Udala
Aiarako Udala
Laudioko Udala
Artziniegako Udala

AURKIBIDEA

Gelaz gelako bertsoak

3. orrialdeaLa Milagrosa ikastetxea- Audio - 5.A
4. orrialdeaLa Milagrosa ikastetxea- Audio - 5.B
5. orrialdeaLa Milagrosa ikastetxea- Audio - 6.A
6. orrialdeaLa Milagrosa ikastetxea- Audio - 6.B
7. orrialdeaFabian Legorburu ikastetxea- Audio - 5.maila
8. orrialdeaFabian Legorburu ikastetxea- Audio - 6.maila
9. orrialdeaLamuza ikastetxea- Audio - 5.maila
10. orrialdea.....Lamuza ikastetxea- Audio - 6.maila
11. orrialdea.....Lateorro ikastetxea- Audio - 5.B
12. orrialdea.....Lateorro ikastetxea- Audio - 5.D1
13. orrialdea.....Lateorro ikastetxea- Audio - 5.D2
14. orrialdea.....Lateorro ikastetxea- Audio - 6.B
15. orrialdea.....Lateorro ikastetxea- Audio - 6.D1
16. orrialdea.....Lateorro ikastetxea- Audio - 6.D2
17. orrialdea.....Audio Ikastola- Audio - 5.A
18. orrialdea.....Audio Ikastola- Audio - 5.B
19. orrialdea.....Audio Ikastola- Audio - 6.A
20. orrialdea.....Audio Ikastola- Audio - 6.B
21. orrialdea.....Etxaurren Ikastola – Arespaldiza – Berdeak
22. orrialdea.....Etxaurren Ikastola – Arespaldiza – Horiak
23. orrialdea.....Lukas Rey ikastetxea – Amurrio – 5. maila
24. orrialdea.....Lukas Rey ikastetxea – Amurrio – 6.A
25. orrialdea.....Lukas Rey ikastetxea – Amurrio – 6.B
26. orrialdea.....Zabaleko ikastetxea – Amurrio – 5. eta 6. maila
27. orrialdea.....Virgen Niña ikastetxea – Amurrio – 6.maila
28. orrialdea.....Aresketa Ikastola – Amurrio – 6.A
29. orrialdea.....Aresketa Ikastola – Amurrio – 6.B
30. orrialdea.....Aresketa Ikastola – Amurrio – 1. DBH.A
31. orrialdea.....Aresketa Ikastola – Amurrio – 1. DBH.B
32. orrialdea.....Zaraobe institutua – Amurrio – 2.D
33. orrialdea.....Zaraobe institutua – Amurrio – 2.E
34. orrialdea.....Zaraobe institutua – Amurrio – 2.F
35. orrialdea.....Zaraobe institutua – Amurrio – 2.G
36. orrialdea.....Arteko gure ama ikastetxea- Artziniega - 5.maila
37. orrialdea.....Arteko gure ama ikastetxea- Artziniega - 6.maila
38. orrialdea.....Urduña Herri Eskola – Urduña- 5. maila
39. orrialdea.....Urduña Herri Eskola – Urduña- 6. maila
40. orrialdea.....Antzinako Gure Ama ikastetxea- Urduña - 5. maila
41. orrialdea.....Antzinako Gure Ama ikastetxea- Urduña - 6. maila

Bertso-eskolak

42. orrialdea.....Eskualdeko bertso-eskolak



La Milagrosa ikastetxea—Laudio 5.A

5. mailan gaude
La Milagrosan gu
Lagun asko ditugu
Hori da seguru

Irakasle onena
Badaukagu hemen
Asko ikasten dugu
Bertsoak egiten

Lagun asko ditugu
Gure ikastetxean
Eta denbora asko
Egoten klasean

Milagrosan ikasi
Onenak gara gu
Athletikoak gara
Hori bai seguru

Klasera joaten gara
Lagun batzuekin
Plazan egoten gara
Gure gurasoekin

Dibertigarria da
Patioan jolasten
Bertsolaritza ere
Bertsoak egiten

5. mailakoak
Futbolari gara
Jolastokia ere
Zelako pasada

5. mailan gaude
11 urterekin
Eskola ondo dago
Beti lagunekin



La Milagrosa ikastetxea—Laudio 5.B

5. mailan gaude
Bertsoak abesten
Bihurriak gara ta
Beti hitz egiten

Riki riki xalala
Gaude gu klasean
Eta bertsolaritza
Nahi dugu lanean

Gu 19 gara
Bai gure klasean
La Milagrosan gaude
Gu beti lanean


Lenguan logure daukat
Matematikan guai
Bideoak ilusita
Musikan egin jai

Klasera sartzen gara
Eta lan gehiegi
Patioa irtetzean
Minutu gutxiegi

Patioan jolasten
Gaude oso alai
Astea amaitzean
Asteburuan jai

9 mutil ta
Ere 10 neska
Etxekolan gehiegi
Hori gure kezka

Futbola gustokoa
Ta golak ere bai
Eskolara joatea
Guretzat ez da guai



La Milagrosa ikastetxea—Laudio 6.A

La Milagrosan gaude
Laudioko eskolan
Ikasten ari gara
Denok gure gelan
Asteburutan gaude
Guztiok primeran
Jolastu ta jolastu
Ez dugu egiten lan

Hona etortzen gara
Asko ikasteko
Ondo pasatzen dugu
Klasean hobeto
Lagunekin jolasten
Ondo pasatzeko
Kontrola egin dugu
Notak ikusteko

Kaixo koadrilla zelan
Gu laudion bagaude
Oso ondo pasatzen
Eta zu non zaude
Asko ikasten dugu
Gara oso trebe
Baina askoz hobeto
Lanik egin gabe

6. mailan gaude
Zintzo eta alai
Asko ikasten dugu
Motel eta lasai
Gure irakasleak
Guztiak oso guai
Ta kurtso amaneran
Egiten dugu jai



La Milagrosa ikastetxea—Laudio 6.B

La Milagrosakoak
Beti bai abesten
Gu oberenak gara
Guztia egiten
Asko pentsatzen dugu
Bertsoak asmatzen
Eta oso politak
Gara denok hemen

Oso jatorrak gara
Gure lagunekin
Beti jolasten dugu
Gure baloiekin
Ondo moldatzen gara
Ikaskideekin
Baina aspertzen gara
Etxeko lanekin

6. mailan gaude
La Milagrosan bai
Jolasten dugu beti
Oso oso alai
Lagun asko ditugu
Beti egiten jai
Asteburutan denok
Pasatzen dugu guai

Kaixo kaixo koadrilla
Ondo gaude hemen
Orain klasean gaude
Bertsoak abesten
Ondo pasatzen dugu
Patioan jolasten
Baina klaseko orduan
Bagaude aspertzen



Fabian Legorburu ikastetxea - Laudio 5. maila

Aretako eskolan
Bostgarrengo mailan
Oso majuak gara
Ez dugu egiten lan

Aretako herrian
Eskola onena
Ta fabian legorburu
Da bere izena


5. mailakoak
Neska ta mutilak
Asko jolasten dugu
Gu gara abilak

Soinketa eta mate
Dira oberenak
Ondo pasatzen dugu
Jolasten den denak

Aretazo eskolan
Lanik ez dugu nahi
Ikasi beharrean
Egin nahi dugu jai

Aretako herrian
Bertsoak egiten
Ondo pasatzen dugu
Klasean jolasten

Aritz gure tutore
Oso majua da
Eta gure klasean
18 gara



Fabian Legorburu ikastetxea - Laudio 6. maila

Hemen lagunak gara
Guztion artean
Jolastokia dugu
Guretzat goizean
Beti eskolan gaude
Txanela klasean
Eta aurrean dugu
Garaitz bapatean

Arteako eskolan
Gu gaude ikasten
Futbolean jolasten
Ondo gaude hemen
Gu onenak garela
Ez du inork sinisten
Ikastera joatea
ez zaigu gustatzen

Fabian Legorburura
Goaz ikastera
Beti motxilarekin
Bagoaz klasera
Patiora joaten gara
Beti jolastera
Txirrina jo ta gero
Korrika etxera

Talde lagunak gara
Hemen gaude pozik
Ondo pasatzen dugu
Ez dago dudarik
Klasera joaten gara
Inoiz ez ixilik
7 mutil 5 neska
Badaude hemendik



**Lamuza ikastetxea - Laudio
5. maila**

Bostgarren mailakoak
Ume onak gara
Lagunekin egiten
Barre ta algara

Lamuza eskolako
Ikasleak gara
Ta ondo pasatzeko
Bagoaz gelara

Iker ta Johan gara
Eta kristian ere
Lamuza ikastetxean
Maisu onenak daude

Lamuza eskolako
onenak gara gu
ondo pasatzen dugu
ikasteko helburu

Euskara ikasteko
Gaude gu eskolan
Andereñoarekin
Beti egiten lan

5. mailakoek
Beti patioan jai
Eskolan gaude eta
Lamuzan gaude bai



Lamuza ikastetxea - Audio 6. maila

Kaixo lagunok Brasilen gaude
Rio Janeiron hain zuzen
Hondartza handian jolasten gaude
Ta edariak edaten
Inauteriak ospatzen gaude
Ta samba asko dantzaten
Festa handiak ospatzen dira
Ta jendea mozorrotzen
Aste bat barru bueltauko gara
Baina ez gara aspertzen

Kaixo lagunok Italian gaude
Gure oporrak pasatzen
Pissa dorrea ikusi dugu
Ta okertuta zegoen
Gauza politak ikusten gaude
Eta asko dibertitzen
Orain jatetxe batean gaude
Esne goxoa gosaltzen
Beste sei egun gelditzen dira
Orain bagoaz ospatzen

Kaixo lagunok Erroman gaude
Pizza goxo batzuk jaten
Ikusi dugu koliseoa
Oso polita zegoen
Hotel batean gelditu gara
Ta yacusian bainatzen
Oraindik gaude Erroman dantzan
Oso pozik gaude hemen
Oraindik pilo gelditzen zaigu
Hemen guztiok gozatzen

Kaixo lagunok kariben gaude
Hondartza askop daude bai
Primeran ari gara pasatzen
Hondartzan etzanda lasai
Izozki asko jaten ditugu
Ez dugu barazkirik nahi
Eta nahi dugu koka kola bat
Hobeto ikusteko Hawaii
Hotel txikian bagoaude baina
Ez dugu etxera itzuli nahi



Lateorro ikastetxea—Laudio 5.B

5. mailakoak
 Bai gara onenak
 Futboleant ta sokan
 Ez gara txarrenak
 Klasea amaitu ondoren
 Gara gaiztoenak
 Klasetik irtetzeko
 Gara azkarrenak

Lucia ta Zuriñe
 Ze politak diren
 Eneko eta Oihan
 Futbolan pentsatzen
 Gaizkarekin jolasten
 Ere bai ikasten
 Unairekin bertsoak
 Traralai abesten

Ume gaiztoak gara
 Bakarrik mutilak
 Futbolan beti gaude
 Pentsatzen guztiak
 Berti jolasten gaude
 Gure klasekoak
 Eta neska batekin
 Gaude erotuak

Lateorroko neskak
 Dira jatorrenak
 Mutilak berriz dira
 Ume gaiztoenak
 Irakasleak dira
 Klaseko txarrenak
 Unairekin bertsoak
 Beti politenak

Lateorroko eskolan
 Dugu guk ikasten
 Bostgarren mailakoak
 Beti hitz egiten
 B ereduan gaude
 Gu beti jolasten
 Yeray tontoarena
 Dago imitatzen

5. mailakoak
 Azkarrenak gara
 Mutilak futboleant
 Neskak jolastera
 Unairekin bertsoak
 Zelako pasada
 Eskola bukatuta
 Zelako pasada



Lateorro ikastetxea—Laudio 5.D 1

Lateorro eskolan
Gara oberenak
Beti gaude jolasten
Gu gara azkarrenak
Animaliekin bai
Gara txintxoena
Tontoarena egiten
Barregarrienak

Futbolean jolasten
Gu gara onenak
Irabazten ditugu
GurePartiduak
Beti galtzen dituzte
Txarrenak direnak
Eta klasean gara
Beti azkarrenak

Lateorro eskola
Da bai politena
Jantoki handiena
Eta goxoena
Gure patioa da bai
Zaratatsuena
Beti pasatzen dugu
Momentu onena



Lateorro ikastetxea—Laudio 5.D 2

5. mailakoak
 Pozik eta alai
 Lateorro eskolan
 Pasatzen dugu guai
 Etxekolanik berriz
 Ez dugu egin nahi
 Inguru orsduetan
 Plastika hobe bai

Gure klasean beti
 Gaude hitz egiten
 Gu gaude txokoetan
 Arkatzak apurtzen
 Oso azkarrak gara
 Gu lanak amaitzen
 Irakasle gaiztoak
 Guri txapa ematen

Unaik lagundu digu
 Errimak bilatzen
 txintxo egoten gara
 futbolaran jolasten
 Baina gaiztoak gara
 Txokoetan jartzen
 Jokalari onenak
 Betirako izaten



Lateorro ikastetxea—Laudio 6.B

Kaixo lagunok Hawaien gaude
Gure oporrak pasatzen
Guztiekin aloha dantzaten
Eta asko dibertitzen
Mario Casas ikusi dugu
Película bat egiten
Beste lau egun gelditzen dira
Hemen ez gara aspertzen
Agur lagunak ikusi arte
Horrela gaude agurtzen

Hola amigos como vose estais
Karnabalak dira hemen
Eskola onenak hemen badaude
Jainkoa gaude ikusten
Han brasildarrak politak daude
Guri zaizkigu gustatzen
Zapore askoko izozkiak daude
Denak ditugu probatzen
Agur Brasildik ikusi arte
Orain bagaude agurtzen

Kaixo lagunok Londresen gaude
Autobusean ibiltzen
Buckingham Palace ikusi dugu
Ta polizia aldatzen
Big Ben-a entzuten dugu
Gantxito asko dastatzen
Norian ferian ibili gara
Alaitasuna sentitzen
Londresen ondo pasatzen dugu
Gaude asko dibertitzen

Kaixo lagunok Las Vegas gaude
Neska politak daude hemen
Turismoa bai egiten gaude
Argazkiak ateratzen
Ta diskotekan beti dantzaten
Kasinoetan jolasten
Zinemara bai joaten gara
Película bat ikusten
Beste aste bat geratzen zaigu
Igual ez gara bueltatzen



Lateorro ikastetxea—Laudio 6.D 1

Seigarren D1 gara
 Hau bai da pasada
 Gure klase honetan
 15 bagara
 Guri ez zaigu gustatzen
 Joatea gelara
 Irakasleen txapak
 Zelako ikara

Klase onena gara
 Futbolean ere
 Golak sartzen ditugu
 Hori bai adore
 Kirolariak gara
 Oso oso trebe
 Lateorrokoak gaude
 Eskolaren alde

Gure klase maitea
 Ez da oso handia
 Lanak egiten dira
 Ze aspergarria
 Zizarea badugu
 Ta ez da txikia
 Sinadura orriak
 Zelako tostoia



Lateorro ikastetxea—Laudio

Laster institutora
 Bagoaz gu alai
 Etxeko lan gehiago
 Hori bai dela guai
 Hori gezur hutsa da
 Ez dugu egin nahi
 Maisu alaiak daude
 Adibidez Unai

6. mailan gaude
 Oso asperturik
 Etxeko lan gehiegi
 badugu hemendik
 10 mutil 6 neska
 Denak elkarturik
 Hemendik joateko
 Ez dugu gogorik

6. mailan gaude
 Primeran pasatzen
 Ordenagailuekin
 Lan asko egiten
 Gogo asko ditugu
 Baian gaude hemn
 Etxean gaudenean
 Asko dibertitzen

6. mailan gaude
 Goaz ikastera
 Jolastokira goaz
 Ondo pasatzera
 Jantokira bagoaz
 Asko liatzera
 Klaseak bukatuta
 Bagoaz parkera

Gure klasean beti
 gaude hitz egiten
 Ta beste batzuekin
 Musika entzuten
 Oso ondo gaude gu
 Janaria jaten
 Eta oraintxe gaude
 Bertsoak abesten



Laudio Ikastola—Laudio 5.A

Ikastolan gu gaude
Lagun guztiekin
27 ikasle
Andereñoekin

Ikasle asko gaude
Laudio ikastolan
Ziortza ta Arantza
Baditugu gelan

Patio handia dugu
Asko jolasteko
Ikastolara gatoz
Ondo pasatzeko

Laudio ikastolako
Umeak gu gara
Azterketak egiten
Ez dugu ikara

11 urte ditugu
Beste batzuk hamar
Elkarrekin klasean
Urte askotan zehar

Pixkat txarto portatzen
Baina onak gara
Eta guztiak pozik
Bagoaz gelara



Laudio Ikastola—Laudio 5.B

Laudio ikastolako
Ikasleak gara
Ta erabiltzen dugu
Bakarrik euskara

Plastikako orduan
Maisua ohiuka
Txanelako orduan
Beti aspertuta

Eskolan sartzen gara
Asko ikastera
Ondo pasatzen dugu
Ta gero etxera

Ikastolara goaz
Ta aspertzen gara
Matematikak utzi
Ta oportetara

Motxila egunero
Eramaten dugu
Patioan jolasak
Egiten ditugu

Gela barruan denok
Ez gara ixiltzen
Jolastokian berriz
Gu beti jolasten

Unairekin klasean
Bertsoak egiten
Matematikaren berriz
Problemak egiten

Ikastolan ikasten
Bagoaz klasera
Oso txintxoak gara
Guztiok batera



Laudio Ikastola—Laudio 6.A

Laudio ikastola da
Munduko onena
Eta gure klasea
Zaratatsuen
Gure irakaslea
Barregarriena
Etxekolanak dira
Klaseko kondena

Ikastolara goaz
Bederatzietan
Ikasi eta gero
Jolastokietan
Guztiok elkarrekin
Euskeraz berbetan
Gure ikastola da
Polita benetan

Hemengo ikastolan
Denak dira pegak
Txarto eginda zerbait
Jakinarazpenak
Guk ez genituzke nahi
Etxerako lanak
Horretan joaten dira
Bai gure orduak

Laudioko 6 A gara
Ikastolakoak
Eta bertsotan gara
Munduko onenak
Ikasle onak ginen
Orain lianteak
Beti haserre daude
Gure irakasleak

Ikastolara goaz
Logurearekin
Ondo pasatzen dugu
Andereñoekin
Beti bezala gaude
Gure protestekin
Eta parrandan gaude
Gure lagunekin



Laudio Ikastola—Laudio 6.B

Gu 6. mailako
Ikasleak gara
Jolastokian beti
Jai eta algara
11 terdietan
Berriro gelara
Txanela eta mate
Zelako ikara

Laudio ikastolakoak
Gara oberenak
Txuleatzeko ez da
Baina politenak
Pixkat gaiztoak bai
Gara jatorrenak
Ta bertsoak egiten
Gara azkarrenak

Eguna hasten da ta
Ditugu klaseak
Irakasleengatik
Dira aspergarriak
Hurrengo egunean
Pasatu orduak
Eta guretzat beti
Daude azterketak

Laudio ikastolako
Ikasleak gara
11 urte ditugu
Bagoaz gelara
Patiora irtetzean
Zelako pasada
Futbolean jolasten
Kriston ostikada

Ikastolan gu gaude
Futbolan jolasten
Gure taldea beti
Doa irabazten
Irakasleak berriz
Daude ohiukatzen
Bai gure klasean
Ez gara ixiltzen




Etxaurren ikastola - Arespaldiza Berdeak

Agate deuna denok ospatzen
Bagaude pozik ta alai
Klaserik gabe arratsaldean
Hori bai dela oso guai

Arratsaldean jaia eskolan
Guztiok gaude abesten
Baserritar guztiak kanpoan
Gure bertsoak entzuten

Koplatxo batzuk egin ditugu
Baserritarrez jantzita
Agate deuna ospatzeko bai
Daukagu makil polita

Ohitura zaharra ta polita
Gure koplak ederrenak
Txapela jarri dugu buruan
Gu garelako onenak



Etxurren ikastola - Arespaldiza Horiak

Eskolan barre egin nahi dugu
Horixe da gure nahia
Deuna agate ospatzeko gatoz
Hau gure festa alaia

Makilak hartu ditugu eta
Denok ondo abestera
Baserriz baserri kantatzeko
Ondo ta alai batera

Etxurreneko neska mutilak
Zintzoak eta azkarrak
Gu gara ikastola onena
Mundu honetan bakarrak

Gaur ikurriñarekin gabilta
Jolasten eta abesten
Baserritarrez jantzita goaz
Gure herriak alaitzen



Lucas Rey ikastetxea - Amurrio 5. maila

Gure eskolan gaude
Hain pozik kantari
Gure gela onena
Gu bai lehendakari

Gure egutegia
Hori bai polita
Patio handia dago
Hasteko korrika

Gu gaude gaur klasean
Primeran pasatzen
Lucas Reyen eskolan
Gu gaude ikasten

Patioan jolasten
Alai eta pozik
Denak lagunak gara
Ez dago dudarik

Lucas rey eskolako
Umeak gara gu
Hemen ikasten dugu
Mate ta inguru

Mamenekin klasean
Gu gaude ikasten
Futbolearen jolasten
Primeran pasatzen

Lucas Reyko eskola
Hoberena bada
Eta guztiok pozik
Bagoaz gelara

Arbela digitala
Badaukagu hemen
Baina jokueta
Ez dugu jolasten

Lucas Rey eskolako
Erregeak gara
Euskara ikasten dugu
Zu txintxatzen zara



Lucas Rey ikastetxea - Amurrio
6. A

Lukas reykoak gara
Ta oso txintxoak
Gure irakasleak
Dira oso gaiztoak
Etxekolanak asko
A ze txaposoak
Oporrak iristeko
Zelako gogoak

6. mailan gaude
Bertsoak egiten
Ez dugu kasu egiten
Beti gaude Marten
Patioan futbolean
Gu beti jolasten
Tere etxeko lanak
Bai guri bidaltzen

Lucas reyko eskolan
Ikasten gaude gu
6. mailakoak
11 urte dugu
Patioan jolasteko
Baloiak ditugu
Eta gela barruan
Daukagu inguru

6. mailakoak
Lucas Rey eskolan
Oso pozik gaude ta
Alaiak patioan
Mutilak eta neskak
Baditugu gelan
Eta pasatzen dugu
Guztiok primeran



**Lucas Rey ikastetxea - Amurrio
6. B**

Amurrion bizi gara
Seigarren B-n gaude
Lucas rey eskolan ta
Oso pozik ere
8 neska gara bai
Ta sei mutil daude
Patioan jolasteko
Denok gara trebe

Eskolara joatea
Da aspergarria
Eta andereñoek
Haserre handia
Mate gazte ta inguru
Da oso itsusia
Plastika ta gimnasia
Dibertigarria

Gure eskolak dauka
Lucas Rey izena
Hoberenak gara ta
Talderik onena
Irakasleek beti
Txapa handiena
Etxekolanak dira
Guretzat kondena



Zabaleko ikastetxea - Amurrio 5. eta 6. mailak

Goizean lokartuta
Bagoaz gelara
Ta erabiltzen dugu
Guk beti Euskara
Ume gaiztoak gara
Horixe ikara
Zabalekoko umeak
Hoberenak gara

Gure klasea da bai
Hemen Polixena
5. maila eta
Ere seigarrena
Etxeko lanak gutxi
Dibertigarriena
Zabaleko eskola
Munduko onena

Hamairu andereño
Ditugu eskolan
Hamaika urte ditugu
Denok orain bertan
Ondo pasatzen dugu
Klasera sartzean
Bederatzi mutil ta
Bost neska klasean

Eskolara joate
Irakasleekin
Liburuak hartuta
Ta motxilarekin
Asko aspertzen gara
Klase luzeekin
Irakasleak beti
etxeko lanekin



Virgen Niña ikastetxea - Amurrio LH 6. maila

Amurriokoak gara
Virgen Niñakoak
Bihurri hutsak baina
Klasean onenak
Txema irakasleak
Zelako problemak
Gu beti garelako
Zaratatsuenak

6. mailan gaude
Bertsoak egiten
Ondo pasatzen dugu
Futbolan aritzen
Ondo portatzen gara
Herritar ematen
Arrima bat daukagu
Amaitzen da hemen

Gure ikastetxea
Da amurriokoa
Neskak eta mutilak
Zelako ekipoa
Dibertigarria da
Gure patioa
Oporrak iristeko
Zelako gogoa

Amurrion bizi gara
Pozik eta alai
6. mailan gaude
Aspergarria bai
Patioan jolastea
Hori bai dela guai
Baina klase ematen
Beti nahi dugu jai



Aresketa ikastola - Amurrio 6. A

Euskara maratoian
Bertsoak egiten
Euskaraz mintzatzean
Ez gara ixiltzen
Ez badugu ulertzen
Maite gu laguntzen
Euskal Herriko hizkuntza
Ez da inoiz hiltzen

Euskara oso polita
Beti bihotzean
Neskak eta mutilak
Abesterakoan
Parkean ta klasean
Jolasterakoan
Beti barrezka gaude
Txisteak kontatzean

Aresketa ikastolan
Beti hitz egiten
Euskararen astean
Ez gara ixiltzen
Gure andereñoa
Bronka bat botatzen
Hori pasatakoan
Euskaraz mintzatzen

Euskara maratoia
Beti bihotzean
Korrika ez egi arren
Euskaraz lanean
Aresketa ikastolan
Beti jolasean
Irrtatan abesten
Bagaude klasean



Aresketa ikastola - Amurrio
6. B

Hemen gaude ikastolan
Bertsoak abesten
Bertso hauek asmatzen
Gu ze onak garen
Errekreo guztiak
Oso azkar pasatzen
Guk asko nahi duguna
Bi ordu jolasten

6. mailakoak
Ze jatorrak garen
Beti aritzen gara
Jokoak asmatzen
Bertsokoko klaseetan
Bertsoak ikasten
Ta beti ari gara
Unai haserretzen

“B” klasekoak gara
Beti hoberenak
Jolasten ta ikasrten
Pasatzen egunak
Unai eta Garazi
Bertso irakasleak
Beraiekin ditugu
Klaserik onenak

Unai irakaslea
Haserretzen bada
Bizitza osorako
Beldurtuko gara
Baina ez da horren txarra
Ona izan ahal da
Bihotz onekoa da
Ta ez dugu ikara



Aresketa ikastola - Amurrio 1. DBH- A

Gure ikastola hoberena da
Baina klasean aspertzen
Ikastolako klase luzea
Ez zaigu asko gustatzen
Irakasleak oso majoak
Betiko txapa botatzen
Biharko froga aprobatuta
Hondartzara abiatzen
Irakasleak bikiniz jantzi
Ta denok barre egiten

Aresketako ikasleak gara
Hementxe gaude abesten
Bertso politak abesten gaude
Lotsa handia pasatzen
Agian norbait aspertu egin da
Jende guztia entzuten
Klasean baino hobeto gaude
Hemen denok dibertitzen
Ta agur esan beharra dago
Bertso honekin amaitzen

Goizero jeiki ta joaten gara
Egun guztietan klasera
Irakasleak beti esaten
Joan zaitez azkar kalera
Gero patiora bagoaz eta
Futbolean jolastera
Eta klasera bueltatzen gara
Berriz ere aspertzera
Eta txirrina jo eta gero
Azkar bagoaz etxera

Aresketako kuadrilla gara
Guztietatik onenak
Irakasleak berriz astunak
Ta munduko jatorrenak
Txapa luzeak bota ta gero
Dira aspergarrienak
Ta jantokian janari batzuk
Ez dira gustokoenak
Bertso honetan bota ditugu
Istorio xelebreenak



Aresketa ikastola - Amurrio 1. DBH—B

Kaixo lagunak hementxe gaude
Bertso polit hau kantatzen
Dbh-ko 1. mailan
Tontoarena egiten
Arritxu, Julen, Markel ta Karla
Bertso klasean gozatzen
Gaztelaniaz egin duenak
Etxekolanak izaten
Hala ta guztiz laurok batera
Beti gaude ondo pasatzen

Dbh-ko 1 b gara gu
Ez zaigu klasea gustatzen
Egun osoa ibiltzen gara
Alferkeriak egiten
Baina gimnasia ta tutoretzan
Nota onak ateratzen
Ta asmakuntzan etxeak sorteen
Frantsesen berriz jolasten
Bertso honekin agurtzen gara
Etxera goaz kantatzen

Kaixo lagunok klasera goaz
Milioi bat ordu aspertzen
Kontrol pila egin ditugu
Natur glasea ondoren
Arratsaldeak astunak dira
Erro karratuz mintzatzen
Froga guztiak pasatzen gara
Gauza guztiak txibatzen
Bertso klasean bukatu dugu
Bertso luze hau idazten

Ez gara hasi bertsoa egiten
Alfer hutsak garelako
Astelehenean gure burua
Beti lo dagoelako
Gure ondoan lagun on ona
Beti dago esnatzeko
Txupa txups bat jan eta ondoren
Gatoza agur esateko
Oraintxe bertan etxera goaz
Telebista ikusteko



Zaraobe institutua - Amurrio

2. D

2.D klaseko
 Neska mutikoak
 Zaraobe guztiko
 Zaratatsuenak
 Gurekin barre egiten
 Daude irakasleak
 Burutik jota gaude
 Klaseko guztiak

Gure klase alferra
 Beti gatazketan
 Bronkak eta zigorrak
 Ezin dugu jasan
 Klariona ta paperak
 Beti daude hegan
 Gero bronka handia
 Matematiketan

Klasean aspertuta
 Egoten gara gu
 Matematika ematen
 Ekuazioa helburu
 Laborategia da
 Hori bai seguru
 Liburuekin lanak
 Egiten ditugu

Klasea da guretzat
 Kartzel modukoa
 Egunero etorri
 Ta 6 ordukoa
 15 minututan
 Gure patioa
 Klasea handia da
 Gure gustokoa



Zaraobe institutua - Amurrio 2. E


Uda beroa laster badator
 Eta oporrak ere bai
 Beti bezala Laida hondartzan
 Egongo gara urez blai
 Lasai ta ondo lo egiteko
 Gauero izango gara gai
 Bi hilabete alferkeritan
 Egongo gara oso lasai

Urte osoan itxoiten geuden
 A ze nolako ikara
 Uda honetan klaseak bukatu
 Joango gara jaietara
 Liburuak erre sutara bota
 Eta denok festetara
 Bikinia hartu eguzki krema
 Eta denok hondartzara

Atera gara klasetik kanpo
 Azkenik uda iritsi da
 Berandu altxatu eta jolastu
 Horiek gure planak dira
 Egun osoan sentitzen dugu
 Eguzkiaren dizdira
 Hondartzara joan moreno jarri
 Ta mutilei begira

Aurtengo oportetan bagoaz
 Denok goaz hondartzara
 Toalla eta bainujantzia
 Betaurreko ta alkondara
 Olatu handien artean gaude
 Aiba zelako pasada
 Inork ez dauka gogorik jada
 Itzultzeko bai gelara

Uda badator eta oporrak
 Eguzkitan ta kalean
 Klaserik gabe primera gaude
 Beti laguneren artean
 Piszina handia ta oso hotza
 Hor barruan igerian
 Udako oporrak beti bezala
 Lagunekin jolasean



Zaraobe institutua - Amurrio 2. F

Zaraobeko neska mutilak
 Gara talderik onena
 Irakasleak aguantatzea
 Hori da gure kondena
 Beti primeran pasatzea da
 Daukagun itxaropena
 Argazki honetan primeran gaude
 Ea nor den guapoena

2. mailan gaude ikasten
 F taldekoak gara
 Neskak mutilak baino gehiago
 Etortzen dira gelara
 Irakasleek ematen dute
 Izugarrizko ikara
 Ta egunero ordu honetan
 Dugu glasean algara

Hemengo neskak bai omen gaude
 Bertso polit hau abesten
 Bigarren f-ko bost langile
 Onenak gara pentsatzen
 Beste klaseko jende gutzia
 Gutaz inbidia pasatzen
 Ta bukatzeko esango dugu
 Beti gabiltza jolasten



Zaraobe institutua - Amurrio
2. G

2. G klaseko
Ikasleak gara
Zaraobe institutoan
Ikasten Euskara
Egun guztitan goaz
Bai triste bertara
Etxeko lanak eta
Klaseei ikara

Ondo pasatzen dugu
Patio guztietan
Baina gu oso txarto
Teoria klasetan
Irakaslearekin
Gu beti txantxetan
Lau mutil oso jator
Gaude talde honetan

Zelako klasea dugun
Denak gaude oihuka
Jon Ander eta Kapek
Beti dute kulpa
Klasera etortzen gara
Motxilak hartuta
Klaseko guapoekin
Neskak harrituta



Arteko gure ama ikastetxea - Artziniega LH 5. maila

5. mailan gaude
Eskolan jolasten
Oso argiak gara
Mateak egiten

Gure klaseko mapa
Da oso handia
Hantxe ikusten da bai
Lagunen herria

Hamahiru klasean
Ta ez zorte txarra
Katu beltz bat kalean
Bada bai zaharra

Arteko gure aman
Ikasle on gara
Gure ikastetxea
Hori bai pasada

Gu hamahiru gara
Ikasle jatorrak
5. mailan gaude
Gu gara altxorrak

Arteko gure ama
Oso ona da bai
Ta guztiok klasean
Betidanik alai

Artziniegakoak
Gu gara onenak
Futbolean jolasten
Gara azkarrenak

Artziniegako plaza
Polixena da bai
Animali guztiak
Beti daude alai

Gure irakaslea
Munduko onena
Laudiokoa da eta
Gorka du izena



**Arteko gure ama ikastetxea - Artziniega
LH 6. maila**

Arteko gure ama
Gure eskola da
Patioa txikia da
Oso gutxi gara
Patioan futbolera
Gero bertsoara
Izaskunen klasean
Barre ta algara

Baixo lagun guztiok
Artziniegatik
Ondo pasatzen dugu
Jolasten hemendik
Idazlanak egiten
Bagaude oraindik
Patioan jolastea
Ez dago hoberik

Arteko gure ama
Gure ikastetxea
Asko gustatzen zaigu
Lanak egitea
Gure irakasleak
Giro ona sortzea
Klasea amaitzean
Zelako bakea

Eskolan gaude beti
Guztiok batera
Lanan ta jolasean
Aritzeko aukera
Bagoaz lagunekin
Dantza prestatzera
Klasea bukatzean
Korrika etxera



Urduña Herri Eskola - Urduña 5. maila

Piratak gara eta
Kortsaritzan pedro
Donostiakoa bera
Eta gu hemengo

Gu guztion bizitza
Da oso ausarta
Jarriko dugu gure
Bandera pirata

Euskal Herrian gaude
Frantsesa etorri
Ondoratuko dugu
Zure itsasontzi

Defendatuko dugu
Gure itsasoa
Norbait etortzen bada
Dauka arazoa

Bertako itsasoko
Marrazoak gara
Ekaitza berdin zaigu
Ez dugu ikara

Agur gure lagunak
Goaz itsasora
Gora gure altxorak
Ta piratak gora



**Urduña Herri Eskola - Urduña
6. maila**

Kakodunak gara gu
Ba dugu indarra
Itsasoan bagaude
Ikusten izarra
Gure hizkuntza da bai
Benetan zaharra
Euskara gure altxorra
Munduan bakarra

Piratak gara eta
Kakoduna gara
Urduñako piratak
Gatoz betsotara
Itsasontzia dugu
Goaz lapurtzera
Gora piratak eta
Aurrera Euskara

Guk euskaraz hitz egin
Kakodunak gara
Piratak gara eta
Ez dugu ikara
Itsasontzi batean
Gu hemendik hara
Altxorra lortu arte
Ez goaz lotara



Antzinako Gure Ama - Urduña 5. maila

Aintzinako andra Mari
Gure estola da
Bostgarren mailan gaude
bagoaz gelara

Oso jatorrak gara
irakasleekin
ondo pasatzen dugu
gure lagunekin

Gure ikastetxeak
txefos du izena
bostgarren mailakoa
talderik onena

Urduñakoak gara
neska ta mutilak
eta futbolan gara
guztiok abilak

Lagunekin jolasten
bagoaz patiora
klasera joaten gara
gu beti gustora

Gaur eskolara goaz
bostgarren mailara
ikastera bagoaz
guztiok gelara

Oso onak garela
guztiok glasean
ama ta aita ere
guztiok etxean

Patioan jolasten
dibertitzen gara
guk hitz egiten dugu
goizero euskara

Klasea handia da
hogeitahiru gara
gure klasean beti
barre ta algara



Antzinako Gure Ama - Urduña 6. maila

Iepa lagunok new yorken gaude
 Gure oporrak pasatzen
 Empire state-a ikusi dugu
 Zentral parkea dago hemen
 Askatasunaren estatua
 Oso polita zegoen
 Zineman geunden bitartean bai
 Jamon yorka jan genuen
 Agur lagunok ikusi arte
 Laster bagara bueltatzen

Kaixo lagunok londresen gaude
 Egun politik pasatzen
 Ta londreseko museo baten
 Denok asko dibertitzen
 Autobusean igo gara gu
 Eta oso polita zen
 Eta gauean denok batera
 Diskotekara joan ginen
 Agur lagunok ikusi arte
 Igual ez gara bueltatzen

Kaixo lagunok zer zabiltzate
 Las Vegas da bai onena
 Pertsonak eta hotelak ere
 Kriston handia da dena
 Inglesez ere Ikasi dugu
 Now we know saying problema
 Potolo gaude asko jateaz
 Ipurdi potoloena
 Azken eguna faltatzen zaigu
 Ta hori da tristeena

Kaixo lagunok madagaskarren
 Gaude baobabs ikusten
 Animaliak politik daude
 Argazkiak ateratzen
 Animaliak basati dira
 Tizas beroa usaintzen
 Ananagoro kapitala da
 Gu hemendik begiratzen
 Beste bi ordu gelditzen dira
 Kaixo hemendik agurtzen

Kaixo lagunok parisen gaude
 Gure oporrak pasatzen
 Louvre museoan monalisa
 Bera oso polita zen
 Arko triunfoan uso asko daude
 Ta lau ordu egon ginen
 Eiffel dorrera igo ondoren
 Gauza politik ikusten
 Agur lagunok ondo pasatu
 Laster gu gara bueltatzen

Eskualdeko bertso-eskolak
2013-2014 ikasturtea



AIARA ESKUALDEKO BERTSO-ESKOLA "AIEBE"

Amurrioko bertso eskola
Amurrioko Kultur Etxea
Juan De Urrutia Enparantza z/g
01470 AMURRIO

Laudioko bertso eskola
Laudioko Kultur Etxea
Lamuza parkea, 13
01400 LAUDIO

Unai Menbidil - Izar Mendiguren
Telefonoa: 945 010505 (Arabako Bertsozale Elkarteak)
e-posta: trunkatun@hotmail.com

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA
AMAIA ZENTROA
Pérez Galdós z/g 01002 GASTEIZ
Tel: 945010505 fax: 945288275
e-posta: araba@bertsozale.com
www.bertsozale.com/araba
www.bertsozale.com

